



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak Euskal Herrian



2004-2005ean eraman inkesta kuantitatiboaren eta kualitatiboaren emaitzen aurkezpena

2005eko irailaren 17an, Uztaritzen



Akitania-Euskadi Fondoa



«Batekmila» programaren barnean eraman inkesta, Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako prospekzio soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker.

Inkestaren partaideak



OBRALARITZA

Euskal kultur erakundea / Eusko Ikaskuntza

BATZORDE ERAGILEA

- Xabier Itçaina / Bordaleko Zientzia Politiko Institutuan ikerlaria
- Igor Ahedo / Euskal Herriko Unibertsitatean erakaslea, Eusko Ikaskuntzaren ordezkaria
- Iñaki Martinez de Luna / Soziologoa, Euskal Herriko Unibertsitatean erakaslea, Eusko Jaurlaritzako prospekzio soziologikoen kabinetearen burua
- Larraitz Mendizabal / Soziologoa, Eusko Jaurlaritzako prospekzio soziologikoen kabineteko langilea
- Erramun Bachoc / Soziolinguista, EKE-ko lehendakari ohia
- Pantxoia Etchegoin / EKE-ko zuzendaria
- Terexa Lekumberri / Etnologoa, EKE-ko ondarea arduraduna

LAGUNTZAILEAK

Inkesta Akitania-Euskadi fondoaren diru-laguntzari esker eta Eusko Jaurlaritzako prospekzio soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker egina izan da.



Galdezkatuak izan diren pertsonak lurralde desberdinetan



Euskal Herri guzian 4000 pertsona galdezkatuak izan dira (16 urte goragokoak) : 3822 metodo kuantitatiboaren bidez (inkesta-egileak etxez etxe ibili dira galdesorta batekin) eta 200 inguru metodo kualitatiboaren bidez (eztabaida taldeak + elkarrizketak + bizitza-historiak).

Euskal Autonomia Erkidegoa


- 1204 inkestatu.
- 6 eztabaida talde (dinamika orokorrak) eta 3 bizitza-historia.

Ipar Euskal Herria

- 1610 inkestatu
- 4 eztabaida talde (dinamika orokorrak) eta 7 buruz buruko elkarrizketa.

Nafarroa

- 1008 inkestatu.
- 6 eztabaida talde (dinamika orokorrak).



- ⊕ 6 eztabaida talde (dinamika bereziak) 3 lurraldeetako jendez osatuak arlo hauetan berezi-tuak : hezkuntza, euskalgintza, kultura eta sorkuntza, gizarte mugimenduak, mugaz bi aldeetako esperientzia dutenak.

Noiz iragan den inkesta eta nork eginik



Nafarroa
Euskal Autonomia Elkargoa
2004ko urria eta abendua artean

- Inkesta kuantitatiboa : Donostiako *Ikertaldea*
- Inkesta kualitatiboa : Bilboko *Kualitate lantaldea*

Ipar Euskal Herria
2004ko urria eta 2005eko ekaina artean

- Inkesta kuantitatiboa : Baionako *Stat'Adour* kabinetea
- Inkesta kualitatiboa : Baionako *Stat'Adour* kabinetea (2 eztabaida talde) eta *Aldia Conseil et Formation Michel Veunac-en* bidez (2 eztabaida talde)



1. LURRALDEA	2
1. Lurraldearen definizioa	2
2. Erreferentziazko lurraldea	3
3. Lurraldeari buruzko eztabaidak	4
2. NORTASUNA	5
1. Nortasunaren baldintzak	5
2. Nortasun sentimendua	6
3. Nortasunari buruzko eztabaidak	7
3. HIZKUNTZA	9
1. Hizkuntza gaitasuna	9
2. Hizkuntza errazena	11
3. Euskara ikasteko motibazioak	12
4. Euskal izenak	13
5. Hizkuntzari buruzko eztabaidak	14
4. KULTURGINTZA	15
1. Euskal kulturaren definizioa	15
2. Euskal kulturaren alorrak	15
3. Sustengatu behar diren ekintzak	16
4. Praktika kulturalak	18
5. Euskarazko hedabideak	19
6. Euskal kultura eta kultura mundializatua	21
7. Euskal Herriko kirolak	22
8. Kulturari buruzko eztabaidak	23
5. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNA	24
1. Inkestaren bilduma	24
2. Etorkizunari buruzko eztabaidak	24

SAR HITZA

Batekmila egitasmoaren egitarauan, Euskal kultur erakundeak ikerketa zabal bat egiteko xedea adierazi zuen, praktika kulturaletaz eta nortasun kolektiboetaz, gaur egun Euskal Herrian bizi direnengan. Ikerketa honek elkarlan handi bat sortu du Eusko Ikakuntzarekin, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetarekin, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatearekin. Akitania-Euskadiko Fondoaren diru laguntza ardietsi dugu. Eta lana eraman dugu Iparraldeko eta Hegoaldeko ikerketa bulego batzuri esker.

Bi ikerbide erabili ditugu, bat bestearen osagarri :

- inkesta kuantitatiboaren tresna nagusia 53 galde zauzkan galdesorta zen, hiru lurraldeetako lagin adierazgarri baten erantzunak biltzeko : Ipar Euskal Herrian (Iparraldea), Nafarroako Foru Erkidegoan (Nafarroa) eta Eusko Autonomia Erkidegoan (EAE). Iparraldeko lagina 1610 pertsonak osatzen zuten, 16 urtez gorakoak eta 4 eskualdeetan banatuak : ipar kostaldean, hego kostaldean, Lapurdi barnealdean eta Baxenafarro-Zuberoan. Nafarroako laginean 1008 pertsona daude eta EAEkoan 2204 pertsona.
- Inkesta kualitatiboan eztabaida taldeak erabili dira bai eta ere buruz-buruko elkarrizketak, kulturaren munduan sartuak diren pertsona batzuekin. Iparraldean 4 eztabaida talde antolatu ziren: Baionako euskaldunak, Baionako erdaldunak, Baigorriko euskaldunak eta Hazparneko erdaldunak. Bestalde kulturgintzan, ekonomian eta politikan dabilzan 7 pertsonak oren bat eta erdiko elkarrizketa egitea onartu dute. Nafarroan 6 eztabaida talde izan dira eta EAEn beste 6. Hegoaldean 3 bizitza historia bildu dira eta Euskal Herri osoko 6 eztabaida taldek, bakoitzak gai berezi batez hitz egin du : hezkuntzaz, euskalgintzaz, kulturaz eta sormenaz, komunikabideetaz, gizarte mugimenduetaz, mugaz gaineko harremanetaz.

2005eko Odarearen Egunetan, inkestaren lehan aurkezpen bat egiten dugu. Iparraldeko emaitza nagusiak orokorki agertuko ditugu, bai eta ere eskualdeak, adin taldeak, nortasun sendimenduak kontuan hartuz. Atal bakoitza bururatzean, eztabaida taldeen eta aipatu pertsonen ikusmoldea gehitzen dugu, Kualitate Lantaldeak laburbildurik. Hau guztia, behin betiko txostenaren beha gaudelarik, gure ustez 2006eko.

I. LURRALDEA

1. Lurraldearen definizioa

Lurraldearen definizioa izan daiteke filosofikoa, sentimenduzkoa, praktikoa.

a) Euskal Herriaren irudipenak

Zein lurraldek definitzen du hobekienik Euskal Herria ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Zazpi herrialdeak	% 35	% 26	% 30
Euskal Herri barnealdea	% 31	---	---
Euskal kostaldea	% 16	---	---
Eusko Autonomia Erkidegoa	---	% 38	% 32
Hego Euskal Herria	% 10	% 10	% 6
Bizkaia + Gipuzkoa	---	% 14	% 22
Ipar Euskal Herria	% 4	% 1	% 1
Ed/ee	% 3	% 7	% 7

Orokorki euskal herritarrek beren herriaren irudipen historikoa (edo mitikoa) daukate, zazpi herrialdeei identifikatuz, bereziki euskaldunek eta berrogei urtekoek. Hegoaldean, herriaren irudipena erakundeetarik hurbilago dago : autonomiak du herria eraikitzen. Iparraldean herria barnealdeari identifikatzen diote, non ere euskaraz gehienik hitzegiten baita, bereziki euskaldunek, barnean lan egiten dutenek eta erretretadunek.

b) Sentimenduzko lurraldea

Beren herriari begira euskal herritarrek duten atxikimendua neurtzeko, laginkidei galdegin zaie, non bizi nahi luketen, orain dauzkaten bizitza eta lan baldintza berdinetan. Erantzunak lurraldeka.

Dauzkatzun bizi eta lan baldintza berekin, non nahiago zenuke bizi ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Oraingo lurraldean	% 48	% 73	% 76
Nonnahi Euskal Herrian	% 18	% 9	% 7
Nonnahi Frantzian, Espainian	% 6	% 4	% 5
Besterik, ed/ee	% 28	% 14	% 12

Orotan nor bere lurraldeari buruzko atxikimendua (Iparraldez, Nafarroaz eta EAEz ari gara), Euskal Herri osoari buruzkoa baino handiagoa da, bereziki Hegoaldean. Euskal Herri osoari buruzko atxikimendua Iparraldean da indartsuena. Nor bere Estatuari buruzko atxikimendua ttipiena da orotan. "Besterik" erantzun multzoa bigarrena da orotan, eta ezaxola adierazten du bizitzeko lekuari begira : " nonnahi Europan, nonahi munduan, berdin zait".

c) Lurralde erabilgarria

Lurraldeen arteko harremani buruzko galdearekin definizio ideologotik ikusmolde praktikoa batera pasatzen gara. Hiru euskal lurraldeetako emaitzak.

Auzo lurralde hauen artean, zeinekin duzu harreman handiena ?					
Iparraldea zeinekin :		Nafarroa zeinekin :		EAE zeinekin :	
Hegoaldearekin	% 33	EAErekin	% 54	Nafarroarekin	% 36
Landesekin	% 20	Errioxarekin	% 17	Kantabriarekin	% 15
Girondarekin	% 18	Arragoiarekin	% 14	Errioxarekin	% 12
Biarnoarekin	% 14	Iparraldearekin	% 4	Burgosaldearekin	% 12
Ed/ee	% 15	Ed/ee	% 11	Iparraldearekin	% 5
				Ed/ee	% 20

Harreman indartsuenak Eusko Autonomia Erkidegoa eta Nafarroaren artean gertatzen dira eta bi aldetara. Gero Iparraldetik eta Hegoaldera, baina ez alderantziz. Hegoaldeko lurraldeek askoz harreman gehiago deramate auzoan dituzten Espainako lurraldeekin.

Galde bat bazen hurbiltasun sentimenduaz : "Zein lurralde hauetarik sentitzen zara hurbilena ?". Erantzunek harremanen norabideak baieztatzen dituzte : sentimenduzko lotura Nafarroa eta EAEn artean, Iparraldearen joera handia Hegoaldera (%38), baina muga mentala bestaldera : "Maite zaitut, nik ere ez". Salerozpenezko harremanak Iparraldetik Hegoaldera, denbora pasa eta turismo harremanak bestaldera. Zazpi herrialdeen ideologia historiari lotuago da, baina ez gaurkotsunari.

2. Erreferentziazko lurraldea

Zein lurralderi identifikatzen zara lehenik ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Zure herriari edo hiriari	% 49	% 58	% 72
Zure lurraldeari	% 16	% 24	% 7
Zazpi herrialdeei	% 8	% 5	% 8
Frantziari, Espainiari	% 17	% 3	% 3
Europari	% 2	% 1	% 0
Mundu osoari	% 4	% 3	% 4
Beste lurralde bati, ed/ee	% 4	% 6	% 6

Euskal herritar guztien ikusmolde berdinak :

- identifikazioa non ere bizi diren herriari edo hiriari buruz egiten da, bereziki Eusko Autonomia Erkidegoan ;
- beren burua Europako edo mundu zabaleko herritar daukatenak gutiengo ttipi ttipian daude.

Lurraldeen arteko ezberdintasunak :

- Hegoaldean Estatuak ez du garrantzi handirik identifikazio eredu bezala, aldiz Iparraldean Frantziari buruzko atxikimendua nor bere lurraldeari buruzkoaren heinekoa da, zeinahi izan dadin erantzulearen adina, sexua, ikasketa maila edo lanbidea.
- Nafarrak Nafarroari biziki atxikiak dira.
- Orokorki, erran ote dezakegu identifikazioa erakundeen aldetik hobekienik egituratua den lurraldeari buruz egiten dela ?

3. Lurraldeari buruzko eztabaidak (inkesta kualitatiboa)

Ipar Euskal Herrian (beste lurraldeetan bezala) Euskal Herriaren mapa osoki gogoan dago, eta berehalako lotura agertzen da zazpi herrialdeekin. Hurbiltasunaren eta atximenduaren kontzeptua, afektibotasun mailako kontzeptua da, bereki euskaldunenganik. Instituzionalizazio politikoaren hautua ez da azaltzen diskurtsoan, izaitekotz utopia bezala. Aldiz osagai komunak berreskuratzeko aukera izan litzateke.

Afektibitate hurbiltasun handiagoa ikus daiteke Hegoaldearekin, Frantziako edozein lurralderekin baino gehiago. Jende helduek diotenaz, Hegoaldea etengabeko erreferentzia da, bereziki gazteen artean. Geroz eta trukaketa gehiago badira surfaren bidez, San Ferminen jaietan, eta horrelakoei esker.

Iparraldean uste dugu Hegoaldeari buruz dugun ezagutza maila, hegoaldekoek Iparraldeari buruz dutena baino askoz ere handiagoa dela, nahiz eta klitxeak egon, besteak beste Hegoaldean jende orok euskaraz egiten duela dioena. Harremanak estuagoak dira Gipuzkoa eta Nafarroarekin, ezinez eta Bizkaia eta Arabarekin. Horiek hola erdaldunak kexu dira Hegoaldean jasotzen duten tratuaz, nehork ez baitaki frantsesa eta ez baitute eginahalak egiten komunikatzeko.

Ezberdintasunak nabari dira kostaldea eta barnealdearen artean. Barnealdekoek mesfidantzaz ikusten dute kostaldearen kemena eta kulturaren osagai egiazkoenak agertzen dituztela diote, kostaldean folklorikoenak daudelarik turistentzat. Horrek kostaldean dagoen aldaketa beharra erakustera ematen du, espresabide berriak bilatzeko, folklorea berezkotzat ikusten ez duten jendeak erakartzeko.

Aipamen baten itzulpena : "Egia da aberastasun paregabekoa duzuela, nik Euskal Herri horia deitzen dut : Nafarroa, Nafarroako hegoaldea, Bardeak. Ilargi paisaia da. Euskal Herri grisa daukazue : Hegoaldea, nahiko industrializatua dagoen autonomia erkidegoarekin. Euskal Herri urdina eta berdea ere daukazue. Koloreak bilatuz gero, aniztasunak daude (ezberdintasunak baino gehiago)" (Hazparneko taldea).

II. NORTASUNA

1. Nortasunaren baldintzak

Lurralde bakoitzeko emaitzak erakutsiak dira, Ipar Euskal Herria erreferentziatzat hartuz. Aipatuak diren baldintzak, bakoitzaren agerraldien maiztasunaren arabera ehunekotan zenbatzen dira. Adibidez : Iparraldean, aipatu diren 100 baldintzetarik, "Euskal Herrian sortua izatea" 29 aldiz agertu da, "euskaraz hitz egitea" 22 aldiz, eta abar, gehiengotik gutiengora. Beste lurraldeetan, maiztasun mailaren zenbakiak parentesi artean kokatuak dira, emaitza bakoitzaren ondoan.

Zure iritziz, zein dira bi baldintza garrantzitsuenak norbaitek bere burua euskal herritartzat sentitzeko ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
1. Euskal Herrian sortua izan	% 29	(1) % 24	(2) % 22
2. Euskaraz hitz egin	% 22	(6) % 6	(5) % 10
3. Arbaso euskaldunak ukan	% 17	(4) % 9	(6) % 3
4. Euskal Herrian bizi eta lan egin	% 13	(2) % 24	(2) % 22
5. Euskal herritar izan nahia	% 8	(2) % 24	(1) % 28
6. Euskal Herriaren defendatzaile izan	% 7	(5) % 7	(4) % 11
7. Deitura euskalduna ukan	% 3	(7) % 4	(7) % 2
8. Euskal arte bat praktika	% 1	(8) % 1	(8) % 1
9. Euskal kiroltzale izan	% 0	(9) % 0	(9) % 1

Euskar Herritar izateko ustezko baldintzetan ezberdintasun handiak badira lurralde batetik bestera. Konpara ditzagun bi muturretako ikusmoldeak. EAEn 3 baldintza nagusi agertzen dira : euskal herritar izan nahia, herrian bizitza eta lana egitea eta sorlekua. Askoz urrunago euskaraz hitzegitea eta militantismo politikoa.

Ipar Euskal Herrian baldintza nagusia sorlekua da, gero herrian bizitza eta lana egitea, arbaso euskaldunak. Askoz urrunago bizitza eta lan lekua. Euskal herritar izan nahia eta militantismo politikoa 5. mailan dira. Iparraldea Hegoalderen arteko bereizketa hau da : alde batetik nortasunari buruzko bizizko atxikimendua, beste aldetik nahizko atxikimendua.

Oraingo antropologia erreferentziatzat hartuz, bi muturretako nortasun kolektibo teoretan gabiltza, primordialismoa eta boluntarismoa :

- alde batetik nortasuna ondare bat da (Iparraldean) nor bere nahia baino sakonagokoa, familia handi bateko senideak bagine bezala ;
- beste aldetik nortasuna hautu bat da (Hegoaldean), sentimendu kolektibo hau onartua eta sustatua delarik helburu politiko batzuentzat edo zerbait aldarrikatzeko.

2. Nortasun sentimendua

a) Nortasun sentimendua lurraldeetan

Nola sentitzen duzu zure burua ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Euskal herritar	% 11	---	% 40
Euskal herritar fr. (esp.) baino gehiago	% 5	% 10	% 15
Euskal herritar bezain frantses (esp.)	% 24	% 0	% 28
Fr. (esp.) euskal herritar baino gehiago	% 16	% 5	% 3
Frantses (espainol)	% 36	---	% 6
Gehien bat nafarra	---	% 38	---
Nafar-espainola	---	% 19	---
Euskal-nafarra	---	% 15	---
Euskal-nafar-espainola	---	% 6	---
Beste	% 7	% 7	% 5
Ed/ee	% 1	---	% 4

Nortasun sentimenduak oso ezberdinak dira lurralde batetik bestera.

- Ipar Euskal Herrian, gehiengo frantses eta gehienik frantses sentitzen da (%52), euskal herritar-frantsesak %24 dira, euskal herritarrak eta gehienik euskal herritarrak %17.
- Nafarroan gehiengo nafar sentitzen da (%38), gero nafar-espainolak dira (%24) eta nafar-euskal herritarrak (%15). Gehienik euskal herritarrak %10 dira.
- Eusko Autonomia Erkidegoan euskal herritar eta gehienik euskal herritar sentitzen direnak %75 dira, euskal herritar-espainolak %29, gehienik espainolak %9.

b) Iparraldeko erantzunak

Erantzunak 3 moldetan aurkez daitezke :

- proposatuak diren 5 erantzunen arabera ;
- "gehienik euskal herritar" eta "gehienik frantses" jaidurak bilduz ;
- edozezin heineko nortasun bikoitzak elkarretaratuz.

Nola sentitzen duzu zure burua ?			
	Erantzunak	Jaidura	Nortasuna(k)
Euskal Herritar	% 11	---	% 11
Euskal herritar fr. baino gehiago	% 5	% 16	---
Euskal herritar bezain fr.	% 24	% 24	% 45 <i>nortasun bikoitzak</i>
Fr. euskal herritar baino gehiago	% 16	% 52	---
Frantses	% 36	---	% 36
Beste	% 7	% 7	% 7
Ed/ee	% 1	% 1	% 1

Hirugarren zutabea daude nortasun bakarrak eta bikoitzak. Ohargarri da nortasun bikoitzen ehunekoak, nortasun bakarreko ehunekoak baino handiagoak direla Ipar Euskal Herrian. Berdin da beste herrialdeetan, eta neurri berdintsuetan :

- Iparaldean, euskal herritar soilak %11, frantses soilak %36, euskal herritar-frantsesak % 45.
- EAEn, euskal herritar soilak %40, espainol soilak %6, euskal herritar-espainolak % 46.
- Nafarroan nortasun molde asko daude, bakarrak, bikoitzak, hirukoitzak.

c) Nortasun sentimendua Iparaldeko eskualdeka

Nola sentitzen duzu zure burua ?					
	<i>Guztira Iparalde</i>	<i>Ipar kostaldea</i>	<i>Hego kostaldea</i>	<i>Lapurdi barnea</i>	<i>B. Nafar-Zuberoa</i>
Gehienik euskal herritar	% 16	% 10	% 14	% 22	% 30
Euskal herritar-frantses	% 24	% 19	% 24	% 22	% 40
Gehienik frantses	% 52	% 64	% 50	% 49	% 24
Beste	% 7	% 7	% 9	% 6	% 6
Ed/ee	% 1	% 1	% 3	% 0	% 1

"Gehienik euskal herritar" sentimendua euskalduntasunaren kurbari jarraitzen zaio, "gehienik frantsesa" frankofonia elebakarraren kurbari jarraitzen zaion bezala. Horiek hola, nortasun bikoitzaren sentimendua askoz indartsuago da eskualde euskaldunenean. Lotura-zonaldea ote da, ala asimilaziorako unea ?

d) Nortasun sentimenduaren bilakaera

Hiru lurraldeetan, pentsamolde orokorra behin-betikotasunaren alde agertzen da. Bi galde baziren "duela 10 urterekin alderatuz, nola senditzen duzu zure burua" eta "hemendik 10 urtetara nola uste duzu sentituko duzula zure burua" eta bietan berdintasunaren erantzuna agertzen da, kasu guztietan, %71tik %80ra. Ikusten dugu nortasun kolektiboa aldagaitza delako iritzi finkoa.

3. Nortasunari buruzko eztabaidak (inkesta kualitatiboa)

Ipar Euskal Herrian, lehen hurbilketa batean, euskal nortasunak harreman estua agertzen du euskararekin. Euskaldun batzuk aipatzen dute euskal nortasunak duen asaldura izpiritua, landa ingurunearekin duen lotura eta laborantza munduak euskal nortasunaren iraunpenean izan duen garrantzi historikoa. Dena dela, euskarak aurrera egiteko, euskal nortasuna landa-giro horretarik bereiztea beharrezkoa dela uste dute.

Diskurtsoan sakondu ahala, nortasun kontzeptua irekiago agertzen zaigu, eta azken finean diotenaz, euskara jakitea ez da ezinbestekoa euskaldun izateko. Kontzeptu ireki eta malgu hori dela-ta, askotan euskaldunen eta erdaldunen arteko mugak ez daude oso argi eta oso iragazkorrak dira. Nortasunen arteko elkarbizitza, naturala dago eta euskaldun-frantses nortasun bikoitzen kasuak ohizkoak dira. Erdaldun batzuk diote euskaldunak uzkur direla eboluzionatzeko eta norik-bere askatasuna aldarrikatzen dute, euskara ikas ala ez erabakitzeko tenorean, ikankuntzak ez baitu beharrezkoa izaterik : hizkuntzaren zailtasunaz kexu dira.

Dimentsio politikoa ez da (Hegoaldean bezain) nabaria eta euskararen ofizialtasunaren aldarrikapenean ezartzen da norabidea. Etorkizunari buruzko zalantzak daude, Estatu

frantsesak euskararen ofizialtasunaren aurka eta Euskal Departamenduaren aurka agertzen duen jarreragatik.

Euskaldunek euskarak euskal nortasunarekin duen lotura azpimarratzen dute eta hizkuntzak notasanaren muina gisa betetzen duen funtzioa. Erdaldunek aldiz irekitze handiagoa eskatzen dute, kulturari babes leku bat izateko ; onartzen dute nortasunak eta kulturak, hizkuntzak baino osagai gehiago dituztela. Euskal kulturatik kanpo daudenen erakartzeko beharra adierazten da. Batzuek integratzeko prest azaltzen dira eta onartzen dute askoz euskaldunago sentitzen direla Euskal Herritik kanpo daudenean.

Aipamen baten itzulpena : "Bat bestearen gainean zeuden nortasunekin adiskidetu naiz eta orain euskalduna sentitzen naiz. Hori da nire lehen nortasuna. Eta gero frantsesa naiz adoptzioz. Eskola frantsesera joan nintzen nire herrixkan, eskola publikora (...) Azkenik europarra naiz eta mundu osokoa. Iraganean gai hori oso zaila izan zen, baina gauza hau pertsonala da". (Hazparneko taldea).

III. HIZKUNTZA

1. Euskaraz hitz egiteko gaitasuna

a) Lehen hizkuntza

Ama hizkuntzari buruzko ikerketa honen bidez hizkuntzaren jarraipena neur genezake, oraingo gaitasunarekin alderatuz. Taula honek Ipar Euskal Herriko emaitzak erakusten ditu. Euskara eta frantsesa dira ama hizkuntza nagusiak, bakoitza bakarrik edo biak elkarrekin.

Zein izan zen zure lehen hizkuntza 3 urte bete arte ?				
Adina :	65 eta +	46-64	30-45	16-29 urte
Euskara	% 33	% 25	% 18	% 18
Euskara - frantsesa	% 4	% 4	% 7	% 6
Frantsesa	% 54	% 62	% 65	% 71
Besterik	% 9	% 9	% 10	% 5

Iparraldean ohargarri da euskara gibelera doala ama hizkuntza bakar bezala eta frantsesak garrantzia hartzen duela. Jatorrizko elebitasuna hein berean dago. Egoera hau laster alda daiteke, familiako elebitasunari buruz, dakigularik haurrak ama eskolara doazela 2 urte edo 2 urte eta erditan, lehen hizkuntza ez delarik osoki finkatua. Hizkuntza transmisioa familiarren eta eskolaren bidez eginen da. Elebitasunaren pedagogia familian ere sartu beharko da.

b) Hizkuntza gaitasuna lurraldeetan

Nola mintzatzen zara euskaraz ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Aski ongi, oso ongi	% 27	% 13	% 34
Pixka bat	% 8	% 10	% 22
Hitz batzu, deus ez	% 65	% 77	% 44

Emaitza hauk ezagutzen ditugu, 1991, 1996 eta 2001eko inkesta soziolinguistikoen antzekoak baitira. Mintzamena azter dezagun, gaitasun adierazgarriena baita, eta lurraldeak aldera ditagun.

- Iparraldean herritarren heren bat elebidun eraginkorrak edo elebidun hartzaileak dira.
- Nafarroa da lurralde erdaldunena baina euskalduntzen ari da eta kasik herritarren laurden bat elebidun eraginkorrak (%13)edo elebidun hartzaileak(%10)dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoa da lurralde euskaldunena, herritarren heren bat elebidun eraginkorrak direlarik eta %12 elebidun hartzaileak.

c) Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

Nola mintzatzen zara euskaraz ?					
	Iparaldean :	65 eta +	46-64	30-45	16-29 urte
Aski ongi, oso ongi		% 36	% 29	% 21	% 22
Pixka bat		% 8	% 6	% 8	% 9
Hitz batzu, deus ez		% 55	% 65	% 70	% 69
	EAEn :	65 eta +	46-64	30-45	16-29 urte
Aski ongi, oso ongi		% 24	% 27	% 35	% 49
Pixka bat		% 9	% 17	% 27	% 31
Hitz batzu, deus ez		% 67	% 57	% 38	% 20

Adin taldeak alderatuz, Iparraldean zaharrenak dira euskaldunenak. Aldiz EAEn gazteago eta euskaldunago dira, 20 urteko hizkuntza politika indartsu baten ondorioa baita. Eskoletako estatistikek lurraldeen arteko ezberdintasunak baieztatzen dituzte, haurren euskalduntasunari begira. Halere euskararen ezagutzaren aldetik hobetze xume bat ikusten da Iparraldean.

Korrelazio handia agertzen da hizkuntza gaitasuna eta nortasun sentimenduaren artean : gehienik euskal herritar sentitzen direnak euskaldunago (elebidun eraginkorrago) dira, nortasun bikoitza dutenekin alderatuz. Eta alderantziz. Adibidez, Iparraldean, aski ongi edo oso ongi mintzatzen dira beren burua euskal herritar sentitzen dutenak :

- gehienik euskal herritar : %72 ;
- euskal herritar eta frantses : %44 ;
- gehienik frantses : % 8.

d) Hizkuntza gaitasuna eskualdeka Iparraldean

Nola mintzatzen zara euskaraz ?					
	<i>Guztira</i>	<i>Ipar</i>	<i>Hego</i>	<i>Lapurdi</i>	<i>B. Nafar-</i>
	<i>Iparralde</i>	<i>kostaldea</i>	<i>kostaldea</i>	<i>barnea</i>	<i>Zuberoa</i>
Oso ongi, aski ongi	% 27	% 14	% 18	% 39	% 60
Pixka bat	% 8	% 6	% 10	% 7	% 12
Htz batzu, deus ez	% 65	% 80	% 71	% 54	% 28

Ipar Euskal Herri barnealdera joan arau, euskaltasuna gehitzen da, eta arabera erdaltasuna gutitzen. Euskaltasun pasiboaren heina berdintsua da eskualde batetik bestera.

e) Hizkuntzaren irabaziak eta galerak

Iparraldeko bi taulak (lehen hizkuntzarena eta hizkuntza gaitasunarena) elkarren ondoan ezarriz, hizkuntzen bilakaera ikus dezakegu adin taldeetan eta iraunpenean. Konparaketa egin ahal izateko, euskara eta frantsesa atxiki ditugu lehen hizkuntza bezala, ehunekoak arabera egokituz, eta beste hizkuntzak baztertu ditugu, ez baitira agertzen hizkuntza gaitasunaren taulan.

Zein da zure lehen hizkuntza ? Nola mintzatzen zara euskaraz ?				
	Adina : 65 eta +	46-64	30-45	16-29 urte
<u>Lehen hizkuntza</u>				
Euskara bakarrik edo frantsesarekin	% 41	% 32	% 28	% 25
Frantsesa bakarrik	% 59	% 68	% 72	% 75
<u>Hizkuntza gaitasuna orain</u>				
Euskara oso ongi, aski ongi	%37 (- %4)	%29 (- %3)	%21 (- %7)	%22 (- %3)
pixka bat	% 8 (+ %8)	% 6 (+ %6)	% 8 (+ %8)	% 9 (+ %9)
Frantsesa bakarrik	%55 (- %4)	%65 (- %3)	%71 (- %1)	%69 (- %6)

Bi taulak alderatuz erran dezakegu frantsesak ez duela galtzerik jasan, jatorrizko euskaldun guztiak elebidun bilakatu baitira. Frantsesdun elebazarren ehunekoak gutitzen dira adin taldeetan eta iraunpenean.

Alderantziz euskara-frantses elebidunen neurria arabera goratzen da. Halere egiazko euskaldunen ehunekoak gutitzen dira adin taldeetan eta iraunpenean, salbu gazteenetan. Adin talde guztietan bada elebidun pasibo andana bat. Nor dira ? Euskalduntzen ari diren erdaldunak ala erdalduntzen ari diren euskaldunak ? Erantzun honetan dago euskararen etorkizuna.

2. Hizkuntza errazena

Euskaldunei egin galdea : zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazenik ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Euskaraz	13 %	14 %	25 %
Frantsesez, espainolez	46 %	43 %	44 %
Bietan berdin erraz	38 %	42 %	31 %
Beste hizkuntza batean	3 %	1 %	0 %

Elebidun eraginkorrei lurraldeka begiratzen badiegu, ikusten dugu Estatuaren hizkuntza errazten erabiltzen dutenen kopurua dela handiena. Adibidez Iparraldean : Adinaren arabera, elebidun gazteen kopurua da handiena (%57) errazki frantsesez hitz egiten dutenen artean ; adinekoen kopurua askoz ttipiagoa da (%35). Alderantziz elebitasun orekatua adinekoetan gehiago aurkitzen da (%42), ezinez eta gazteenetan (%25), hauek eskolan gehiago ibiliak direlarik. Badakigu hitz egiteko erraztasunak baldintzatzen duela hizkuntzen erabilera, beste baldintzak berdinak direlarik.

3. Euskara ikasteko motibazioak

a) Euskara ikasteko xedea

Euskara ez dakitenei edo oso guti dakitenei galdegin diegu ikasteko xedea dutenetz. Hona erantzunak luradeka.

Euskararen ikasten ari zara ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Bai	4 %	2 %	6 %
Orain ez, baina lehen aritu nintzen	8 %	15 %	28 %
Ez, baina maite nuke ahal banu	20 %	22 %	25 %
Ez, eta ez dut ikasteko asmorik	61 %	56 %	40 %
Ed/ee	8 %	6 %	2 %

Hiru herrialdeetako erdi euskaldunetan eta erdaldunetan, oso gutik xedea dute euskara ikasteko edo trebatzeko. Entsegu bat egin dutenak edo baldintza onen beha daudenak askoz gehiago dira EAEn, Nafarroan baino edo Iparraldean baino. Euskara ikasteko asmorik ez dutenak orotan gehiengoak daukate : Iparraldean % 67 erdaldunetan % 61 ez dute euskalduntzeko xede izpirik. Familiako eta eskolako jarraipenak garrantzi handia dauka, zeren eta estatistiken arabera 16 urtez goragoko euskal ikasleen kopurua ahula da. Halere balio du batzuren eta besteen motibazioak ezagutzea, alde direnak sustatzeko : berek ikasten ez badute ere, beren haurrak ikastolan edo eskola elebidunean ezar ditzazkete.

b) Zertarako euskara ikas ?

Euskara ikasteko xedea dutenei, zutenei eta maite luketenei galdin zeie zergatik edo zertarako. Hona hemen Iparraldeko erantzunak nortasun sentimenduaren arabera : euskaldunagoak eta frantsesagoak. Euskal-frantsesen iritzia ez da agertzen batz-bestekotik hurbil baitago gehiengoak daukatelakotz.

Zergatik euskara ikasten duzu ?				
	Sentimenduz	euskaldunago	frantsesago	GUZTIRA
1. Euskaldunekin komunikatzeko		27 %	38 %	35 %
2. Herri honetako hizkuntza delako		19 %	29 %	26 %
3. Nire erroak aurkitzeko		19 %	7 %	12 %
4. Herri honetan integratzeko		7 %	13 %	11 %
5. Euskal Herrikoa sentitzen naizelako		25 %	3 %	8 %
6. Gure seme-alabak ikasten ari direlarik		2 %	4 %	4 %
7. Lana aurkitzeko edo lanerako		1 %	6 %	4 %

Euskara ikastearen alde zirenek 3 erantzun eman zezaketen. Irakurgarritasuna errazteko, motibazio nagusiak zenbatu ditugu, agerraldien maiztasunaren ehunekoa bilatuz. Oro har, gehienik agertzen diren zergatiak integrazioari buruzkoak dira (euskaldunekin komunikatzeko %38, herriko hizkuntza delako %29), bereziki euskal-frantses edo frantsesago senditzen direnengan. Gehienik euskal herritar sentitzen direnen artean beste bi arrazoi agertzen dira euskara ikasteko, beren nortasun sentimenduaren arabera: Euskal Herrikoak sentitzen direlako (%25) eta beren erroak aurkitzeko (%19).

Euskara ikasteko arrazoi praktikoak oso guti agertzen dira Iparraldean : lana aurkitzeko (%4) eta seme-alabak ikasten ari direlako (%4). Hau da eukarak gizarte bizitzan duen leku urriaren ondorioa, bai eta ere legezko onarpen faltarena. Eusko Autonomia Erkidegoaren adibideak erakustera ematen du gizarte bizitzarako beharra dela euskara ikasteko motibazio indartsuena.

Alderantziz euskara ikasteko asmorik ez dutenen zergati nagusiak dira, denbora beste zerbaitetan erabiltzeko nahia eta denek frantsesa dakitelako. Beraz ez dute euskararen beharrik komunikatzeko.

c) Euskara haurrei irakasteko xedea

Galdea intresgarria da familiako transmisioa erakusten duelako. Iparraldeko emaitzak, nortasun sentimenduaren arabera.

Seme-alabarik baldin baduzu edo bazenitu, nahiko zenuke euskara jakin dezaten ?				
	Sentimenduz	euskaldunago	frantsesago	GUZTIRA
Jadanik badakite	% 36	% 9	% 18	
Bai, nahiko nuke jakin dezaten	% 57	% 37	% 45	
Berdin zait	% 4	% 30	% 20	
Ez, ez nuke nahi jakin dezaten	% 1	% 18	% 12	
Ed/ee	% 1	% 7	% 6	

Ondorioak kasu eginez hartu behar dira, inkestatu askorentzat galdea hipotetikoa baitzen. Hiru lurraldeetan transmititzeko nahia egiazko transmisioa baino goragokoa da, bai eta gehienik euskal herritar sentitzen direnen aldetik ere : beraz xede ona ez da aski, motibazio bizkor batek ez badu sustengatzen ; gainera eskolaren bidezko transmisioa ere antolatu behar da. Ezaxola eta jarrera ezkorrak biziki gora dira Ipar Euskal Herrian (%32), EAERI konparatuz (%4), bereziki euskal herritar sentitzen ez direnetan (%45), baina ere guti edo aski euskal herritar senditzen direnengan (%5).

4. Euskal izenak

Euskal izenak atxikitzearen alde edo aurka, galde honen helburua da jendek euskal izenentzat duten atxikimendua neurtzea : pertsonen izen deiturak, tokien izenak, herri, etxe ala karrika. Iparraldeko emaitzak agertzen dira orokorki eta adinaren arabera. "Alde eta oso alde" erantzunak elkarrekin zenbatuak dira, bai eta ere "kontra, oso kontra" erantzunak.

Euskal izenak atxikitzearen eta bultzatzearen alde ala kontra zara ?					
	Adina : 65 eta +	46-64	30-45	16-29	GUZTIRA
(Oso) alde	% 72	% 75	% 81	% 77	% 77
Ez alde ez kontra	% 23	% 16	% 13	% 11	% 16
(Oso) kontra	% 2	% 2	% 1	% 0	% 1
Ed/ee	% 3	% 6	% 5	% 12	% 6

Jende izenen eta toponimoen begiratzeak eta bultzatzeak iritzi baikorra du Euskal Herri osoan. Iparraldean % 16 axolarik gabe dira eta kasik nehor ez da kontra. Gogo hoberena erakusten dute 30-45 urtekoek (%81), euskaldunek (%85), gehienik euskal herritar sentitzen direnek (%97). Horiek hola jarrera baikorra adierazten dute gehienik frantses sentitzen direnek (%69) eta erdaldunek ere (%72).

Kasik aho batez denak euskal izenen alde, gure toponimia begiratzeko eta bultzatzeko programa batentzat egoera ezin hobea da.

5. Euskarari buruzko eztabaidak (inkesta kualitatiboa)

Ipar Euskal Herrian euskalgintzak funtsezko tokia dauka (Hegoaldean baino zentraltasun guttiagorekin halere). Diskurtsoak arreta ezartzen du bizipen pertsonaletan eta bakoitzak euskararekin duen harremanean, beste gogoeta batzu baztertuz, salbu onarpen ofizialaren aldarrikapena.

Denek onartzen dute, erdaldunek ere, euskararen gizarte balorea, hizkuntzak ekartzen duen kultura aberastasunarengatik. Oro har beharrezko motorea da euskal kulturarentzat, baina oztopoak ere badira, hala nola ikasteko eta erabiltzeko zaitasunak. Erdaldun batzu damu dira euskara ez ezagutzeaz, baina ingelesa erabilgarriago dela uste dute. Baztertuak sentitzen dira hein batean eta euskalduna izateko eukara jakin behar den ala ez eztabaidatzen dute.

Hizkuntza gaiaren alde politikoa, ofizialtasunaren aldarrikapenari lotua da, bai eta ere nahitezko irakaskuntzari. Ezbardintasunak badira euskaldunen eta erdaldunen pentsamoldean : batzuentzat onarpen ofiziala molde bakarra da euskal kulturaren iraunpena segurtatzeko ; besteentzat ez da beharrezkoa eta erabakia jendearen askatasunaren esku ezarri beharko litzateke, nahiz eta eskoletako irakaskuntza denek ongi ikusten duten.

Euskaldunek diote euskararen erabilera ahula dela eta gaizki egina. Ez dago belaunaldirik gazteen erabilera berma dezakenik : aiton-amonak euskaldun eta bilobak erdaldun, bitartean belaunaldi haustura bat badago. Euskaraen galerak belaunaldi trauma sortzen du eta hobendunak bilatzen dira : familia da tresna nagusia hizkuntza jarraikarazteko eta bere erantzukizuna ez du bete. Hizkuntzaren kontzeptu utilitarista ukatzen da eta denbora berean euskara gizarte osoan sentiarazteko behararen garrantzia azpimarratzen da.

Espazioak falta dira euskara aitzinarazteko, beraz antolatu behar dira. Bitarteko belaunaldia hizkuntza berreskuratzeko beharraz ohartu da, eta seinale batzu ikus daitezke gazteen artean, bereziki ikasteko nahia. Iraganean euskal hiztunek konplexu bat jasaiten zuten, beren burua baserritar bezala ikusten baitzuten. Orain zailatasunak aipatzen dira euskara egunero erabiltzeko, bai eta hizkuntza ezagutzen dutenentzat ere.

Euskaldunen arduragabekeria gaitzesten da : euskara ikasten ari direnak epaitzen baitituzte, laguntzeko ordez ; denbora berean dakitenek ere bizpahiru hitz soilik erabiltzen dituzte noizean behin. Halere afektibitate konplizitatea sortzen da euskaraz mintzatzen direnen artean.

IV. KULTURGINTZA

1. Euskal kulturaren definizioa

Inkestatu bakoitzak "bai" edo "ez" erantzun behar zuen proposatuak zaizkien 4 definizioak onartzeko edo ukatzeko. Taula honek erakusten du definizio bakoitzak ardietsi dituen erantzun baikorren ehunekoa lurraldeen arabera. Batzuk erantzun bat baino gehiago eman dute, ondorioz ezin da egin ehuneko bertikalik.

Zer da zuretzat euskal kultura ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Euskal Herriari buruzko guztia, edozein hizkuntzatan	% 70	% 68	% 71
Euskaraz egiten den guztia	% 56	% 43	% 48
Euskal Herriko jendeak sortua, hemen edo beste nonbait	% 54	% 64	% 74
Euskal Herrian egina den guztia, edozein izan hizkuntza, gaia, egilea	% 51	% 52	% 63

Definizio bat ere ez da beste nagusitzen. Bi definizioak emaitza hobeak ardietsi dituzte : Euskal Herria gaitzat duen sormena edozein hizkuntzatan izan dadin eta Euskal Herriko artistek egiten dutena hemen edo nonahi. Dirudi kultura hizkuntzatik bereizten dela eta lekutasuna ez dela baitezpadakoa. Euskal kulturagaiak eta artistaren nortasunak hartzen dute garrantzia, jendeen gogoan. Iparraldeko erantzuleen arabera euskarak ez du sekulako garrantzirik kulturagintzan (%56).

2. Euskal kulturaren alorrak

Zein dira euskal kulturari lotzen dizkiotzun hiru osagai nagusiak ?			
	GUZTIRA	Sentimenduz euskaldunago, frantsesago	
1. Euskara	% 16	(1) % 22	(3) % 13
2. Kantua	% 14	(2) % 14	(2) % 15
3. Dantzak	% 14	(4) % 10	(1) % 16
4. Pilota	% 12	(5) % 9	(4) % 13
5. Ohiturak	% 10	(3) % 11	(5) % 9
6. Musika	% 7	(7) % 6	(6) % 8
7. Gastronomia	% 7	(8) % 4	(7) % 8
8. Jaiak	% 7	(6) % 8	(8) % 6
9. Monumentuak	% 4	(12) % 2	(10) % 3
10. Euskal kirolak	% 3	(9) % 3	(9) % 4
11. Euskal ikurrak	% 2	(10) % 3	(11) % 2
12. Antzerkia	% 2	(13) % 2	(12) % 1
13. Ahozko literatura	% 1	(11) % 3	(13) % 1
14. Literatura idatzia	% 1	(14) % 2	(14) % 1
15. Arte ederrak	% 1	(15) % 1	(15) % 0
...			

Iparraldeko kultura dugu aztertzen. Aipatuak diren alorrek ehunekotan zenbatuak dira, hain zuzen aipamen maiztasunaren arabera. Bataz-bestekoa oinarritzat hartuz, erantzunak elkarrekin konparatzen dira, gehienik euskal herritar sentitzen direnenak eta gehienik frantses sentitzen direnenak.

Iparraldean euskal kulturari maizenik lotzen diren osagai nagusiak dira, bataz-bestekoen arabera, euskara, kantua, dantzak, pilota eta ohiturak. Bost alor horiek berak aipatuak dira, zeinahi izan dadin nortasun sentimendua, baina ordena ezberdinean.

Jarraian aipatzen dira musika, gastronomia eta jaiak, maila berdinean. Urrunago momumentuak eta euskal kirolak. Eta zerendaburuan aurkitzen ditugu hizkuntza erabiltzen duten ekintza zenbait hala nola mitologia, antzerkia, ahozko eta idatzizko literatura.

Dirudi kontraesan bat badagola euskal kulturaren definizioarekin, non ere hizkuntzak ez baitzuen leku handirik. Hiru luraldeetan euskara da euskal kulturaren osagai nagusia, askoz dantza eta pilota baino gorago. Gero ohiturak eta gastronomia aipatzen dira. Iparraldearen berezitasuna da, kantuari ematen zaion garrantzia, 2. mailan ezarriz.

3. Sostengatu behar diren ekintzak

a) Euskal kultura sostengatu behar denetz

Taulak Iparraldeko emaitzak agertzen ditu. Aitzin galde bat egin zaie inkestatu guztiei, kultur ekintza gehiago nahi dutenetz. Erantzun orokorrekin alderatzen ditugu gehienik euskal herritar sentimendua dutenen erantzunak eta gero gehienik frantses sentimendua dutenenak.

Gustatuko litzaizuke euskal kulturarekin lotu ekitaldi gehiago egotea ?			
	GUZTIRA Sentimenduz euskaldunago, frantsesago		
		-----	-----
Bai, gustatuko litzaidake	% 39	% 62	% 31
Berdin zait	% 24	% 10	% 31
Ez dut beharra ikusten	% 32	% 27	% 32
Ed/ee	% 5	% 1	% 6

Orokorrean, euskal kultura sostengatu behar dela erraten dutenen kopuruak ez du gainditzen axolagabeen eta euskal kulturaren aurka direnen multzoa. Bizitza kulturalaren kaltetan den jarrera hori, gehiengoan agertzen da lagina guztian, edozein adinetan eta zeinahi izan dadin hizkuntza gaitasuna.

Ezberdintasun ohargarriena agertzen da nagusiki euskal herritar sentitzen direnen eta nagusiki frantses sentitzen direnen artean : lehenetan bi herenek jarrera baikorra adierazten dute eta besteetan hein bereko jarrera axolagabea edo aurkakoa.

Euskal Herri osoan, inkestatuen gehiengo ahul batek (%55) adierazten du jarrera baikorra euskal kultura sostengatzeko, bereziki EAEn (%60), bai eta ere gazteetan (%61), euskaldunetan (%71), nagusiki euskal herritar sentitzen direnetan (% 75) edo nafar euskaldunengan (%90).

b) Zein alorretan sostengatu behar da euskal kultura ?

Galde hau egin da euskal kulturen aldeko jarrera adierazi dutenengan, zein alor sostengatu behar diren. Bakoitzak 3 hautu egiten ahal zituan. Iparraldeko emaitzak agertzen dira, nortasun sentimenduen arabera. Aipatu diren alorrak ehunekotan zenbatu ditugu, aipamen maiztasunaren arabera.

Euskal kulturaren zein alor (3) bultzatu beharko lirateke genienik ?			
	GUZTIRA	Sentimenduz euskaldunago, frantsesago	
1. Kantua	% 13	(6) % 7	(1) % 18
2. Dantzak	% 12	(3) % 9	(2) % 15
3. Musika	% 10	(4) % 8	(3) % 11
4. Euskara	% 9	(1) % 12	(5) % 6
5. Ohiturak	% 8	(6) % 7	(4) % 10
6. Jaiak	% 8	(5) % 9	(5) % 6
7. Antzerkia	% 7	(2) % 11	(9) % 5
8. Pilota	% 6	(11) % 5	(5) % 6
9. Gastronomia	% 5	(15) % 2	(5) % 6
10. Ahozko literatura	% 5	(6) % 7	(10) % 4
11. Zinema	% 5	(6) % 7	(12) % 3
12. Monumentuak	% 3	(12) % 4	(12) % 3
13. Literatura idatzia	% 3	(10) % 6	(16) % 0
14. Euskal kirolak	% 3	(13) % 3	(10) % 4
15. Euskal ikurrak	% 2	(13) % 3	(14) % 2
16. Arte ederrak	% 1	(16) % 1	(15) % 1

Ipar Euskal Herrian sostengatu behar diren kultura alorretan gehienik aipatuak dira, batzbestekoaren ordenan, kantua, dantzak, musika, euskara eta ohiturak. Definitu ziren osagai nagusien araberrak dira (ikus euskal kulturaren alorrak). Salbuespen bat : pilota 8. mailara gibelatu da, musikak hartu du pilotak zuen lekua.

Nagusiki frantses sentitzen direnek sostengatu behar diren lehen 5 alorrak hautatu dituzte eta batzbestekoaren ordena berean. Euskara, jaien, pilotaren eta gastronomiaren maila berean dago.

Nagusiki euskal herritar sentitzen direnek eta euskaldunek euskara lehen mailan ezartzen dute, sostengatu behar diren gaietan. Jarraian aipatzen dituzte antzerkia, dantzak, musika eta jaiak.

Euskal Herri osoa hartuz, sostengatu behar diren kultura gaiak dira, euskara, dantzak, musika, hiruak maila berdintsuan, gero antzerkia, literatura eta ohiturak. Eusko Autonomia Erkidegoak euskarazko filmak gehitzen ditu eta Iparraldeak kantua azpimarratzen du.

4. Praktika kulturalak

a) Iparraldean orokorki

Ipar Euskal Herriko praktika kulturalak :

- 1. zutabea : kultura alorrek aipamen maiztasunaren ordenan ;
- 2. zutabea : azken 3 hilabetetan aldi bat bederen aipatu ekintzan parte hartu dutenen ehunekoa ;
- 3. zutabea : euskaldunen parte hartzea alor bakoitzean ;
- 4. zutabea : euskararen presentzia, euskaldunak ibiltzen diren kultura alorretan.

Azken hiru hilabetetan zein kultura ekintzetan ibili zara ? Zenbat ziren euskaraz ?			
	GUZTIRA	Euskaldunen partehartzea alor bakoitzean	Euskararen presentzia euskaldunen kultura alorretan

1. Zinema	% 40	(1) % 30	% 5
2. Kontzertuak	% 23	(4) % 21	% 34
3. Euskal dantzak	% 20	(2) % 27	% 67
4. Museoak, erakusketak	% 19	(5) % 19	% 19
5. Monumentuak	% 16	(6) % 13	% 8
6. Pastoralak, maskaradak	% 14	(3) % 22	% 92
7. Antzerkiak	% 12	(6) % 13	% 39
8. Dantza garaikideak	% 8	(9) % 6	% 22
9. Bertso saioak	% 7	(8) % 9	% 81
10. Mintzaldiak	% 4	(10) % 4	% 7

Logika zerbait agertzen da kulturari buruzko irudikapenaren eta praktikaren artean : ikusi dugu zer garrantzia ematen zaion euskarari, dantzari eta musikari. Horiek hola, Iparraldean gehienik praktikatzen diren kultura ekintzak dira zinema, kontzertuak, euskal dantzak, museotako eta monumentuen ikusketak eta antzerkia.

Euskaldunek ez diete lehentasun berezirik ematen euskara erabiltzen duten ekintzei. Egia erran, salbu kontzertuetan, pastoraletan eta bertsoaritzan, euskararen tokia mendrea da kulturaren alorretan. Eleaniztasuna erakargarri da publiko batentzat, bereziki museoetan (%38) eta monumentuetan (%45).

b) Iparraldean eskualdeka

Taula honetan inkestaren parte hartzea ikusen da, zerrendatuak diren kultura gertakarietan. Adibidez, batzaz-beste, erantzun dutenen %40 zinemara joan dira, gutienez aldi bat azken hiru hilabetetan. Ehunekoak metatuz, ageri da bizitza kulturala ezberdina dela eskualde batetik bestera. Kulturgintza ezaugarria 100etan ezarri, BABko heina da demografiaren eraginez, parte hartzearen heina 117tan da Baxenafarroa-Zuberoan eta 131n Lapurdi barnealdean. Nola uler daiteke Donibane Lohizune eta Hendaia inguruko maila ahula (53). Ala aments kostaldea da bizitza kulturalaren gunea ahula ? Parte hartzearen neurria ez da beraz eskaintza kulturalaren hein berekoa.

Azken hiru hilabetetan zein kultura ekintzetan ibili zara ? Zenbat ziren euskaraz ?					
	<i>Guztira Iparraldea</i>	<i>Ipar kostaldea</i>	<i>Hego kostaldea</i>	<i>Lapurdi barnea</i>	<i>B. Nafar- Zuberoa</i>
1. Zinema	40 %	44 %	29 %	43 %	32 %
2. Kontzertuak	23 %	22 %	14 %	28 %	29 %
3. Euskal dantzak	20 %	13 %	12 %	29 %	37 %
4. Museoak, erakusketak	19 %	21 %	11 %	23 %	18 %
5. Monumentuak	16 %	17 %	8 %	20 %	16 %
6. Pastoralak, maskaradak	14 %	9 %	2 %	20 %	35 %
7. Antzerkia	12 %	13 %	5 %	19 %	10 %
8. Dantza garaikidea	8 %	9 %	2 %	13 %	4 %
9. Bertso saioak	7 %	6 %	1 %	13 %	6 %
10. Mintzaldiak	4 %	5 %	2 %	5 %	4 %
<i>Kulturgintzaren ezaugarria</i>	<i>100</i>	<i>98</i>	<i>53</i>	<i>131</i>	<i>117</i>

5. Euskarazko hedabideak

a) Hedabideen erabilera Iparraldean

Galde bat egin da euskarazko hedabideen erabilerari buruz : telebista, irratia, musika diskoak eta kazetak, aldizkariak eta liburuak. Iparraldeko erantzunak ehunekotan emanak dira, 3 maila bereiziz parte hartzea neurtzeko :

- usu (egunero, astean behin edo gehiago) ;
- noizean behin (hilabetean behin edo gutiago) ;
- sekulan.

Azken hiru hilabetetan zenbat aldiz erabili dituzu euskal hedabideak ?				
	Telebista	Iratia	Musika	Irakurgaiak
--				
Usu	% 28	% 25	% 27	% 8
Noizean behin	% 21	% 14	% 27	% 11
Sekulan	% 51	% 60	% 45	% 78
Ed/ee	% 1	% 1	% 1	% 1

Irrati emankizunak entzuten dituztenen kopura, elebidun eraginkorren eta elebidun hartzaileen kopuruaren heinekoa da guti gora behera (orotara % 35). Heine hori gainditzen dute telebista ikusleek (% 49) eta bereziki musika entzuleek (% 54) Aldiz aldizkariak eta liburuak askoz irakurle gutiago (% 19) erakartzen dute, izan diten usaiakoak ala noizean behinekoak.

Hizkuntza gaitasunaren arabera, %49 elebidun eraginkorrek deus ez dute irakurtzen euskaraz. Euskaldunak analfabetoak ote dira beren hizkuntzan, % 80 dabiltzalarik euskal entzun-ikusizko hedabideetan ? Ez da hobekuntza izpirik ageri gazteetan, euskaldunen neurria beste adin taldeetan baino apalagoa baita.

b) Hedabideen erabilera lurraldeka

Taula honek erakusten du euskarazko hedabideen erabilera lurraldeka, eguneroko eta asteroko erabiltzaileak elkarretaratuz.

Euskal hedabideen ohizko erabilera			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE
Telebista	% 28	% 27	% 50
Irratia	% 25	% 12	% 26
Musikagaiak	% 27	% 19	% 29
Irakurgaiak	% 8	% 10	% 19

Telebista da hedabide erabiliena orotan, eta neurri harrigarrian Eusko Autonomia Erkidegoan (%50). Aldiz egunkarien, aldizkarien eta liburuen irakurketa hedabide ahulena da orotan, baina ezberdintasun handiarekin Iparraldearen eta EAEn artean.

- Iparraldeko irakurleak %8 dira batz-beste (%10 gazteetan, %10 adinekoetan) ;
- EAEn irakurleak % 19 dira batz-beste (% 27 gazteetan, % 14 adinekoetan).

Aisialdi irakurketaren garapena, euskarazko eskolen ondorio baikor bat da, denbora berean aitzinamendua ikusten da beste hedabideen erabileran ere.

Nafarroa da euskarazko hedabideen erabiltzaile ahulena, bereziki irratiei begira (%12). Halere irakurketa biziki aitzinatzen da gazteen artean (%10 batz-beste, %13 gazteetan, %3 adinekoetan).

c) Euskal irratiak Iparraldean

Hiru galde egin dira euskarazko irratiei buruz, Iparraldean bakarrik, lagina 1610 pertsonakoa delarik, 16 urtez goragokoak.

- Euskarazko irratirik ezagutzen duzu ?
- Ezagutzen baduzu, zein da edo zein dira ?
- Euskarazko irratiren bat entzuten duzu ?

Erantzuleen kopurua oso ahula da : 516 (%32), hauetan 113k (%22) diote irratia bat edo beste ezagutzen dutela. 14 irratia aipatuak izan dira baina biziki neurri ezberdinetan. Taulan daude 158 aipamenen banaketa, irratiz irratia, zenbaki absolutuetan eta erantzuleen bizi lekuaren arabera.

99 erantzulek euskarazko irratietaz egin dituzten aipamenen kopurua				
	GUZTIRA	Iparraldea	Hego kostaldea	B-Nafarroa
		kostaldea	Lapurdi barnea	Zuberoa
Irulegiko Irratia	44	3	3	38
Gure Irratia	38	15	8	15
Xiberoko Boza	23	---	---	23
Euskadi Irratia	19	11	5	3
Mendililia	8	---	---	8
France Bleu	6	2	2	2
Lapurdi Irratia	5	3	1	1
Euskadi Gazte	5	---	2	3
...				

Lagina hertsiegi da extrapolazio zerbait egiteko. Ohar batzu :

- Aipatuena diren 4 tokiko irratia euskaraz bakarrik ari dira.
- Beste 10 irratia euskarazko emankizunak eskaintzen dituzte oso neurri ezberdinetan.
- Irulegiko Irratia da irratia aipatuena, gehienik Baxenafarroa-Zuberoko eskualdean.
- Gure Irratia, 2. mailan dagoena, eskualde guztietan ezagutua da.
- Xiberoko Boza bakarrik Baxenafarroa-Zuberoko eskualdean ezagutua da.
- Euskadi Irratia BABn eta hego kostaldean ezagutua da.

115 pertsonak diote euskal irratia bat entzuten dutela, beraz erantzuleen % 22k : euskarazko irratia bat ezagutzen dutela dioten kopuru bera da. Berdintasun horrengatik erraten ahal ote dugu goragoko taulak irratia bakoitzaren entzulegoaren irudia ematen digula ?

6. Euskal kultura eta kultura mundualizatua

Inkestako galde batek jenden iritzia eskatzen zuen kultura globalizatuaren eraginaz euskal kulturari begira. Eta ondoko galdea zen euskal kulturaren eraginaz kultura globalizatuari begira. Erantzunen bi taulak bat bestearen ondoan ezarriz, ideia bat badugu jendeak zer ondorio on edo txar ikusten dituzten bi kulturen hunkipenean, alde batetik kultura berezi bat, euskalduna gure kasuan eta bestetik gure inguruan dagoen kultura orokorra, munduaren globalizaziotik sortua. Beste anitz bezala euskaldunak beldur ote dira berdintze kultural bat izanen dela ? Erantzunak lurraldeka banatuak dira.

Euskal kulturarentzat zer da kultura globalizatua ?				
	Iparraldea	Nafarroa	EAE	GUZTIRA
Traba bat	% 18	% 24	% 29	% 26
Ez du eraginik	% 30	% 19	% 15	% 17
Aberastasun bat	% 34	% 18	% 28	% 26
Ed/ee	% 18	% 39	% 28	% 30

Kultura globalizatuarentzat zer da euskal kultura?				
	Iparraldea	Nafarroa	EAE	GUZTIRA
Traba bat	% 4	% 6	% 5	% 5
Ez du eraginik	% 43	% 27	% 29	% 30
Aberastasun bat	% 33	% 28	% 38	% 35
Ed/ee	% 20	% 39	% 27	% 29

Baztertzen baditugu erantzunik eman ez dutenak (ed/ee) eta "eraginik ez" erantzun dutenak, jenden erdiak doi-doia beren iritzia adierazi dute, kultura mundualizatuaren eta euskal kulturaren kontaktuak ekar litzazken suerte on ala arriskueta. Gehiengoarentzat ez ote da problemarik ?

Euskal Herria orokorki ikusiz, kopuru berdina (%26) dio globalizazioa euskal kulturarentzat traba dela edo aberastasun bat. Bestek (%17) ez dute eraginik ikusten, onik

ez txarrik euskal kulturarentzat. Iparraldean askoz gehiagok (%34) eragin ona goaitatzen dute euskal kulturarentzat, arriskuak ikusten dituztenen aldean (%18). Gogo lasaiaren seinalea ote da kulturen topaketari begira ?

Bi galdeak hurbiltzen baditugu, iritzi orokorra da kultura mundualizatuak askoz gehiago irabaz lezakela kultura berezien aldetik, ezinez eta euskal kulturak kultura globalizatuaren aldetik. Bestalde kultura mundualizatu arriskugarriago da euskal kulturarentzat ezinez eta alderantziz. Euskal kultura irabazle atera daiteke, bainan ez arriskurik gabe.

7. Euskal Herriko kirolak

a) Euskal Herrian praktikatzen diren kirolak

Ehunekoek erakusten dute ikestatuetan zenbatek kirola bat edo beste praktikatzen duten edo bederen jarraitzen.

Kirol bat egiten duzu ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE

1. Ibilaldiak	% 35	(1) % 47	(1) % 33
2. Txirrindula	% 13	(4) % 8	(4) % 8
3. Mendia	% 12	(3) % 10	(2) % 13
4. Pilota	% 9	(5) % 5	(7) % 4
5. Igeriketa	% 8	(2) % 13	(3) % 12
6. Atletismoa	% 4	(6) % 4	(5) % 6
...			

Ibilaldiak, txirrindularitza, mendia, igeriketa eta atletismoa dira kirol erabilienak. Pilota Iparraldean zabaldua da azkoz Hegoaldean baino gehiago. Gauza bitxia : txirindulak arrakasta gehiago dauka Iparraldean Hegoaldearekin alderatuz.

b) Euskal Herrian jarraitzen diren kirolak

Kirol baten jarraitzailea zara ?			
	Iparraldea	Nafarroa	EAE

1. Errugbia	% 38	(x) % 2	(x) % 4
2. Futbola	% 32	(1) % 26	(1) % 31
3. Pilota	% 15	(2) % 20	(2) % 20
4. Txirrindula	% 13	(3) % 11	(3) % 13
4. Tenisa	% 13	(5) % 9	(5) % 9
5. Boleibola, eskubaloia ...	% 9	(3) % 11	(4) % 13

Futbola, pilota, txirrindularitza, tenisa eta eskuzko baloiak dira kirol ikusgarrienak Euskal Herri osoan. Iparraldean kirol ikusgarriak ordena berean dira, baina errugbia lehen mailan ezarri, Hegoaldekoentzat zerrendaren beherealdean dagolarik. Pilotak garrantzi handia dauka jendeen irudikapenean, baina ez da kirol nagusia. Lehentasuna futbolak hartu du Hegoaldean, errugbiak eta futbolak Iparraldean.

8. Kulturari buruzko eztabaidak (inkesta kualitatiboa)

Ipar Euskal Herrian, kultura modernotasun balore bat bilakatu da, askotan lotua delarik erresistentzia mugimenduekin globalizazioaren aurkako borrokan. Indartsu eta bizirik dagoen mugimendua, gazteen mintzamoldeari egokitu dena eta hauekin oso errazki konektatzen dena, jende helduek diotenaz.

Bizi den bilakaera naturaltasun osoz onartzen da, eta taldeen lehentasunezko aldarrikapen gisa agertzen zaigu. Dimentsio politikoak ez ditu kultura esperientziak baldintzatzen (Hegoaldean ez bezala). Bereizketa ikusten da ohitura eta folkloreak artean : bata jatorrizkoa da, besteak konotazio ezkorra dauka. Kulturaren folklorizazioa kritikatu da, askotan turistentzat egiten den ikuskizun bilakatzen baita, horrek suposatzen duen harrotasun galerarekin.

Euskaldunen eta erdaldunen arteko ezberdintasun nagusia da, euskaldunentzat kultura bizitzako esperientzia dela, egunerokotasunaren ingurunean. Alderantziz, erdaldunek kanpotik hitz egiten dute : integrazio zailatasunak aipatzen dituzte, euskaldunen nortasun hetsiaren ondorioak direnak, diotenaz.

Iritzi ezberdinak badira erdaldunetan. Batzuentzat, euskal kultura eguneroko bizipenetik hurbil dagoen errealitate gisa azaltzen da eta jakin-mina agertzen dute euskal kulturaren adierazpenen inguruan. Bestek euskal kulturaren izaera hetsia kritikatu dute, nahiz eta onartzen duten egoera horrek garrantzizko funtzioa betetzen duela euskaltasuna babesteko, babesean egoteko borondate finkoa adieraziz.

Gehienik aipatzen diren ohizko kultura praktiken artean kirola dago, bai eta musika, antzerkia. Jaiek ere garrantzi handia daukate. Hots argi da kultura hau oso ezberdina dela, departamenduko eta Frantziako beste eskualdetan ikusten ez dena.

Aipamen baten itzulpena : "Erran nahi dudana da, hizkuntza funtsezko tresna dela euskal kulturaren barnean. Baina tresna bat besterik ez da. Kultura azkoz ere garrantzitsuagoak eta askotarikoak diren baloreetaz osaturik dago" (Baigorri).

V. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNA

1. Inkestaren bilduma

Ideologiaren aldetik, Zazpi herrialdeek dute Euskal Herria hobekienik definitzen. Baina praktikan harreman haustura bat badago Iparraldearen eta Hegoaldearen artean. Dena dela jende gehienentzat erreferentziatzko lurraldea bere udalerria da eta dagoen lurralde administratiboa.

Iparraldean euskal nortasunaren ezaugarri nagusiak dira sor lekua eta euskara, aldiz Hegoaldean euskal herritar izateko nahia, herrian bizitzeko eta lan egiteko aukera. Euskaldun gehienek nortasun bikoitza sentitzen dute, nortasun marraduna : euskaldun-frantses, euskaldun-espainol, nafar-euskaldun. Beren burua soilik "euskal herritar" daukatenetan (%40 dira EAEn) batzuk euskara ez dakite, eta beren burua soilik "frantses" ikusten dutenetan (% 36 dira Iparraldean), anitzek nahi dute haurrek euskara ikas dezaten eta jatorrizko euskal izenak atxik ditzagun.

Hain zuzen motibazio gehienak baikorrak dira euskararen alde. Alta euskara gutiengoan dago 3 lurraldeetan eta elebidun gehienek hobeki hitz egiten dute frantsesez edo espainolez. Halere jende gehienek sustengatzen dute familia eta eskola bidezko transmisioa. Egia erran, gaur egun, euskalduntasuna aitzina doa orotan eta elebakartasuna gibelera doa orotan. Eukararen alde bada maitasun oldar harrigarria, eguneroko erabilerari buruz norabidetu behar dena.

Kultura ikurraren eta errealitatearen mugan dago. Euskal kultura aipatzen dutenentzat aipagai nagusiak dira euskara, kantua, dantza, pilota, ohiturak. Halere ohizko praktikan euskarak ez dauka lehentasuna, baina bai zinemak, kontzertuek, dantzak, erakustokiek. Antzerkia, bertsojaritza eta literatura ez dira hain erakargarriak jende askorentzat, euskara dakitenak barne. Sabuespen bat : entzun-ikusizko euskal hedabideak interesgarriak dira euskaldunentzat, elebidun hartzaileentzat, berdin erdaldunentzat. Irakurketak badu sostengu eraginkor baten beharra.

Eukal kirolaren irudikapena aldatzen ari da. Pilotak dauka sentimenduzko lehentasuna, baina ohizko praktikan, ibilaldiak eta txirrindularitza aitzindu zaizkio. Pilota kirol ikusgarria da, plazan baino gehiago hedabideetan. Horiek hola Hegoaldean futbolak dauka lehen lekua eta errugbiak Iparraldean.

Hona hemen Euskal Herriaren argazki aberats bat, denbora berean berezia eta anitza : biziki berezia euskaren aldeko atxikimendua eta nortasun sentimendu bizkorra direla-ta ; oso anitza sinesmenen aldetik, kirol eta kutura praktikaren aldetik, elkarrekin dinamikaren aldetik. Gauza guztiak bilakaeran daude : lurraldearen kontzeptua, hizkuntza eta kultur adierazpenak eta bereziki nortasunaren sentimendua. Hain segur, horra zergatik laginaren gehiengo handiak ez duen globalizazioaren beldurrik.

2. Etorkinari buruzko eztabaidak (inkesta kualitatiboa)

Eztabaida taldeak eta galdezkatuak ziren pertsonak gomiatu ditugu prospektiba ariketa bat egitera : eukal kultura eta nortasuna 2050. urtean. Ariketa zaila, egoera hain da korapilatsua.

a) Indarguneak

Euskal kultura, bere malgutasunarengatik, erakargarria da erdaldunentzat ere : Heien jarrera errespetuzkoa da eta prest daude esperientzietan parte hartzeko.

Galdezkatu diren jende helduek ikusten dute gazteen jarrera baikorra dela hizkuntza eta kulturaren alde. Diotenaz euskal mundua, berezkoak duen dinamika baino askoz ere

urrunago, globalizazio eta berdintasun kulturaren aurkako borrokaren ikurra da. Beren elkarteetan, gazteek aurkitu dituzte beren nortasuna adierazteko lekuak eta tresnak, bereziki jaietan, aisialdi alorrean eta musikaren bidez. Ondorioz gazte hauek, euskaldun ala erdaldun, mugitzen dira beren adarrikapenen inguruan eta bereziki euskara eta euskal kultura berreskuratzeko.

Oro har euskal mundua balore modernoa bilakatu da. Ez da ezustekoa. Balorizazio eta planifikazio lanetan diharduten pertsonen ekarpena da : euskal kulturaren muina aro berriari egokitzen da.

b) Ahulguneak

Instituzioen gelditasun iraunkorra salatzen da, bereziki euskararen onarpen ofizialaren aurka eta Euskal departamenduaren aldeko aldarrikapenen aurrean. Ondorioz borroka juridiko eta politiko nekagarria eramaten dugu.

Belaunadien arteko haustura bat badago oraingo gazteen eta aiton-amonen artean, gurasoek ez baizieten euskara irakatsi. Ondorioz familiak jaraikarazi ez zuen kultura berreskuratzea beharrezkoa da.

Ez dago espazio jakinik euskaraz egunero komunikatzeko. Gutxi erabiltzen den hizkuntza gaizki erabiltzen da.

Kanpoko jendea badator, edo turista bezala edo lasaitasunean egoteko, baina tokiko gizarte aldaketetan murgiltzeko asmo handirik gabe. Paraleloki, gazteek ezin dira herrian kokatu, etxebizitzaren garestitze prozesuarengatik. Indar bizen odol huste hori euskal nortasunaren kaltetan gertatzen da.

c) Globalisazioa

Globalizazioa edo mundualizazioa oraingo problema nagusienetakik bat da. Berezko kulturak, euskarazkoa besteen artean, aterpeak izan daitezke izpirituen berdintasunari aurre egiteko. Egia da, erresistentzia jarrera bat har genezakela, galiar herrixka bezala erromanoen aurka. Eraginkorrago litzateke geure kultura beste kultur biziekin artikulatzea, Bretoiekin adibidez.

Hedabideen rola beharrezkoa da Ipar Euskal Herriaren eta Hegoaldearen arteko harremanak indartzeko. Elkartasun kulturala zabaltzeko tresnak izan daitezke.

Egia da bide luze bat egin dugula, bereziki azken 30 urte hauetan. Baina euskal kulturaren eta nortasunaren etorkizuna ez da segurtatuko 1950eko baloreak berpiztuz. 2050eko aterabidea gure kulturaren bizitasunean dago, beste kulturen aberastasunak mailegatuz.